



Langabetuendako diru-laguntzak

2013-14 ikasturtean, Bergarako Udal Euskaltegiak honako diru-laguntzak izango ditu langabetuentzat.

- **Ikasturte HASIERAN LANGABEZIAN** dagoen ikasleak matrikula-kostuaren **ERDIA** ordainduko du.
- Ikasleak **kontu korrontearen** zenbakia (edota matrikula ordaindu izanaren ordainagiria) eta langabezian dagoela ziurtatzen duen **agiria** (*Periodos de inscripción* delakoa) aurkeztu beharko ditu Euskaltegiko idazkaritzan.
- **Hilabeteko** epea izango du agiriok aurkezteko. Hala egin ezean, osorik ordaindu beharko du matrikula.
- Gehienez ere, **hiru epetan** ordaindu beharko du matrikula (urria-azaroa-abendua).

Ikasturte AMAIERAN, berriz, honela jokatu da **diru-itzulketak** zehazterakoan:

- Urria-ekaina bitartean, **4'5 hilabetetik GORA** lan egin badu, ikasleak **ez du itzulketarik izango**.
- Urria-ekaina bitartean, **4'5 hilabetetik BEHERA lan egin badu eta asistentziaren % 85 bete badu**, ordaindutakoaren % **20** jasoko du.
- Urria-ekaina bitartean, **BATERE LANIK EGIN EZ BADU eta asistentziaren % 85 bete badu**, ordaindutakoaren % **60** jasoko du.

Bestalde, eta **ikasturte HASIERAN LANEAN** diharduen ikasleari dagokionez,

- Urria-ekaina bitartean, **4'5 hilabetetik GORA** lan egin badu, **eta asistentziaren % 85 bete badu**, ordaindutakoaren % **25** jasoko du.
- Urria-ekaina bitartean, **4'5 hilabetetik BEHERA lan egin badu eta asistentziaren % 85 bete badu**, ordaindutakoaren % **60** jasoko du.

Horretarako, batzuek zein besteek **eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte EKAINean bertan** Euskaltegiak egiazta dezan zenbateko lan-jarduera izan duen ikasleak urria-ekaina bitartean. **Epe horretan agiririk aurkeztu ezean, ikasleak galdu egingo du diru-laguntza jasotzeko eskubidea.**

Arestian aipatu diru-laguntzak **Bergaran erroldatutako** ikasleei baino ez dagozkie.